



ACT-MC-2017/0068

**KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA
AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN 2. GUTUN-AZALAK IREKITZEA**

Bileraren gai-zerrenda: *Gipuzkoako Foru Aldundiko errepide sarean arrisku geoteknikoen ebaluazioa eta kudeaketa integratua egiteko (1-O-5/2017) zerbitzu kontratuaren lizitazioan aurkeztutako eskaintzen 2.gutun-azalak irekitzea.*

Eguna: 2017ko irailaren 6a

Hasiera/Amaiera ordua: 13:30/13:50

Tokia: Bide Azpiegituretako Departamentuaren 3.anitzeko gela (Miramon pasealekua, 166.)

Bertaratutakoak:

Mahaiburua: Silvia Pérez Yéboles, Errepideetako zuzendari nagusia.

Bokalak: Marina Besné Torre, Bide Azpiegituren Birgatze eta Berrikuntzako zerbitzuburuaren ordezkaria.

Arantza Etxeberria Labayen, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontu-hartzailetza eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkaria.

Elixabete Martínez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa

Idazkaria: M^a Carmen Delgado Vallejo, Kontratazioko zerbitzuburuaren ordezkaria.

2017ko abuztuaren 24an Kontratazio Mahaiak ireki zituen ICYFSA Ingenieria SL (1), LKS Ingenieria S. Coop. + Ikerlur SL ABE (2), Subterra Ingenieria SL (3) CEMOSA (4) Euskontrol SA + Ingelplan Consulting SL ABE (5) eta TYPESA Técnica y Proyectos SA enpresen 1. gutun-azalak. Ekitaldian Kontratazio Mahaiak akats edo hutsune batzuk antzeman zituen: Alde batetik, ICYFSA Ingenieria SL, Subterra Ingenieria SL eta CEMOSA enpresek aurkeztutako DEUC dokumentu-ereduan ez zegoela jasota B atala: Kaudimen ekonomiko finantzarioa eta C atala: Kaudimen teknikoari dagokion datuak. Bestetik, LKS enpresak ez zuen egiaztagiririk aurkeztu, ziurtatzeko betetzen zuela gutxienez % 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten langileentzako kuota. Emandako epean enpresa guztiak erantzun dituzte errekerimenduak eta ontzat eman du Kontratazio Mahaiak.

Aipatutako lekuan, datan eta orduan, Kontratazio Mahaia eratu da 2. gutun-azalak jende aurrean irekitzeko, eskaintza teknikoak hain zuzen, kontratazio honen baldintza administratibo berezien agirian ezarri den bezala, balió judizio baten mende dauden irizpideen arabera eman behar delako haztapena, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak baitira. Idazkariak ohartarazi du 13.3 baldintza administratibo bereziaren edukia: *Lizitatzaileraren batek ez badu aurkezten esleipen irizpideei buruzko dokumentaziorik, enpresa horren proposamena ez da baloratuko aztertzen ari den irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira, inola ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik.*

Ekintza honetan Kontratazio Mahaiak hauxe antzeman du: alde batetik, Subterra Ingenieria SL enpresak ez duela sartu hobekuntza teknikoen atala bere eskaintzan, eta bestetik, Euskontrol SA + Ingeplan Consulting SL osatzeko ABEk ez duela jaso jarduera kritikodun lanerako programa (PERT eta GANTT diagrama). Gainontzeko enpresek irizpide guztiak (izenburuak) sartu dituztela euren eskaintza teknikoetan. Dena den, eskaintzak aztertuko dituzten teknikoek irizpide horien edukiak egiaztatuko dituzte eta baloratuko dituzte puntuazioak esleitzeko.

Eta ekitaldira bertaratu direnek oharririk edo erreklamaziorik egin ez dutenerz gero, idazkariak gutun-azaleko edukia balorazioa egiteko organo arduradunari (teknikoari) eman dio eta ekitaldia amaitutzat eman du.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

PRESIDENTEA,

Sin.- Silvia Pérez Yéboles

IDAZKARIA,ordezkapenez

Sin.- M^a Carmen Delgado Vallejo

